



A GRIPEA. 1. ZK. 2009KO ABUZTUA.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAREN
JARRAIBIDEAK.

EAE-KO IKASTETXEETARAKO GOMENDIOAK, NEURRIAK ETA JARDUTEKO ARAUAK A/H1N1 GRIPEAREN KASUAK AGERTZEKOTAN

Kasuaren definizioa: Sukarra $> 38^{\circ}$ eta gutxienez arnas infekzio akutuaren bi zeinu edo sintoma (eztula, sudur-kongestioa, arnas zailtasuna, buruko mina, eztarriko mina, giharretako mina, ondoez orokorra). Beherako eta gorakoekin batera ager daiteke.

Sintomatologiak 5 eta 8 egun artean irauten du, eta gaixotasuna hasi eta 7 egun beranduago ere kutsa daiteke beste pertsoneri.

Gomendio hauek hezkuntza-erakundeetako agintarientzat dira, ikastetxeetan A gripearen transmisioa saihestearren.

GOMENDIOAK

Gure herrian, A H1N1 gripearen koadro klinikoa modu arinean agertzen da kasu gehienetan. Hortaz, egoera epidemiologikoak oraingoaren antzera jarraitzen duen artean, hauxe pentsatzen da:

1. Pandemiaren hedapen-maila ikusita, gaur egun eta arau orokor gisa, ikastetxeak ixtea ez da gomendagarria.
2. Eskolara iristean sintomak (sukarra edo buruko, eztarriko, giharretako minak, eztula, mukiak) dituzten ikasleak edo eskola-aldian gaixotzen direnak badaude, aita-amei edo tutoreei jakinarazi behar zaie, lehenbailehen etxera bidaltzeko.
3. Kasu horretan, ikaskideengandik bereiziko dira aitak, amak edo tutoreak iritsi arte, horiek zain ditzaten. Kutsapenak saihesteko, maskara bat jarriko zaie eta, ezin bada, zaintzen duen pertsona ez zaio metro bateko baino distantzia txikiagora hurbilduko.
4. Ikasle erasanak etxean egongo dira sintomatologia desagertu eta 24 ordu beranduago arte, eta **inoiz ez 7 egun baino gutxiago**.
5. Langile baten kasuan, etxean egongo da sintomatologia desagertu eta 24 ordu beranduago arte, eta **inoiz ez 7 egun baino gutxiago**, eta dagokion laneko bajaren bidez justifikatu beharko da.
6. Arrisku-faktoreren bat **(1)** duten ikasleak eta ikastetxeko langileak euren osasun-zentrora joango dira sintomatologia agertuz gero.
7. Langileek botatzeko eskularruak erabiliko dituzte higiene- eta garbiketlanak egitean.

NEURRI HIGIENIKOAK

1. Eskuak xaboi likidoarekin maiz garbitzea sustatuko da: eskolara iristean, jolasgaraitik itzultzean, janariak kontsumitu aurretik, komunera joan ondoren eta eskolatik irteterakoan. Eskuak botatzeko paperezko eskuoihalekin garbituko dituzte.
2. Ikasleak eta ikastetxeko langileak, eztula edo doministiku egitean, ahoa eta sudurra botatzeko musuzapiekin estaltzera premiatuko dira, eta horrelakorik ez bada, eskuarekin edo besoarekin.
3. Ikastetxe guztiek ikasle eta irakasleek erabiltzeko paperezko musuzapiez hornituko dituzte euren ikasgelak eta komunak, eta baita paperontziez ere, ahal bada pedaldunak.
4. Garbiketa orokorra areagotuko da, eta bereziki mahai, ate eta leihoen sagar eta helduleku, kanila, ordenagailuen teklatu eta sagu, eta jostailuen gainazalen garbiketa.
5. Ikasgelak aireztatuko dira, gutxienez eskola bakoitza amaitu ondoren.
6. Ikasleak eta ikastetxeko langileak higiene edo garbiketako objektu pertsonalak, jangelako tresnak (edalontziak, botilak, mahai-tresnak...) eta idazteko materiala (arkatzak, borragomak, boligrafoak...) ez partekatuzera premiatuko dira,

ANTOLAKUNTZAKO NEURRIAK

Erabakiak hartzea erraztearren, ikastetxeetako zuzendaritzak hutsegiteen erregistro bat eramango du hezkuntza-maila bakoitzeko, bai ikasle, bai irakasleena. Nolanahi ere, datuen konfidentziasuna errespetatuko da. Ikastetxeek aplikazio informatiko bat izango dute, Sailean zentralizatua, prozesuaren jarraipen, bilakaera eta kontrolerako.

Ikastetxeetako zuzendaritzek antolakuntzako beharrezko aldaketak proposatu beharko dituzte –indarrean den araudiaren arabera, badute horretarako gaitasuna–, pandemiaren eraginaren aldaketak eta bilakaera kontuan hartuz, bai ikasle, bai euren ikastetxeetako langileen kasuan (kontingentzia-plana). Ezohiko neurriak aplikatu ahal izatea dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari proposatuko zaio.

Ikastetxeko zuzendaritzak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Osasun Zerbitzuen aholkularitza izango du.

(1) ARRISKU TALDEAK

- Emakume haurdunak.
- Gaixotasun kardiobaskular kronikoak (hipertentsioa izan ezik).
- Arnas gaixotasun kronikoak (bronkio eta biriketako displasia, fibrosi kistikoa eta asma moderatu/larri iraunkorra barne).
- I. eta II. motako diabetes mellitusa tratamendu farmakologikoarekin.
- Giltzurruneko gutxiegitasun moderatu/larria.
- Hemoglobinopatiak (odoleko gaixotasunak) eta anemia moderatu/larriak.
- Asplenia (barerik eza).
- Gibelego gaixotasun kroniko aurreratua.
- Gaixotasun neuromuskular larriak.

- Immunosupresioa duten gaixoak (GIB infekzioak, farmakoek edo trasplante-hartzaileetan sortutakoak barne).
- Obesitate morbida (gorputz-masaren indizea 40koa edo gorakoa).
- 18 urtetik beherakoak, Reye-ren sindromea garatzeko aukera izateagatik azido azetilsalizilikoarekin tratamendu luzea jasotzen dutenak.

A GRIPEARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO:

Informazio-telefono orokorra: 900-474 732 - 900GRIPEA

Interneten: www.euskadi.net/gripe/